

EUSKAL KULTUR ALFABETATZEA HEZKUNTZAN UNIBERTSITATEKO MIKROKREDENTZIALA

GAIA	Hezkuntza
ECTS/ORDUAK	225 ORDU
EGUTEGIA	2025/10/06 - 2025/12/05
TOKIA	<u>Eskoriatza</u>
HIZKUNTZA	Euskara
MODALITATEA	Erdi-presentziala

Informazio gehiago
eta izen-ematea

AURKEZPENA



Azken hamarkadan hezkuntza arautuan murriztuz joan dira kulturaren berriaz trebatzeko guneak, eta irakasle, teknikari edota gurasoen kultur begiradan eta errepertorioan eragina izan du horrek. Hutsune horri erantzuteko, ikastaro honek, alde batetik, hainbat kultur adierazpidetan alfabetatzeko urratsak egingo ditu, bai irakasle edo hezitzaile gisa kultur adierazpideak gorpuzteko eta interpretatzeko gaitasunak eskuratzeko, eta bai ikasleak kulturaren alfabetatzeko kontuan hartu behar ditugun geruzak identifikatu ahal izateko. Euskal kultura hezkuntzan jorratzean, kulturaren inguruko paradigmak, teoriak eta ikuspegiak berrikusi eta birkokatu behar dira, euskal kulturaren eta kultura gutxituaren testuinguruak eta logikak aintzat hartuta. Kultur alfabetatzean urratsak egitearekin batera, euskal kulturaren biziberritzean eragiteko paradigmaren inguruan ere gogoeta egingo da formazio honetan.

NABARMENDUAK

- ✓ **Kultur alfabetatzean urratsak emango dituzu eta euskal kulturaren biziberritzean eragiteko paradigmen inguruan trebatuko zara.**
- ✓ **Euskal kulturako askotariko adierazpideak eta adarrak modu bateratu eta integralean jorratuko dituzu.**
- ✓ **Modalitate hibridoa: aurrez aurreko 5 saio eta 4 saio sinkrono + online ikasketak.**
- ✓ **Hezkuntza eragile orori: irakasle, irakaslegai, hezitzaile, guraso, aholkulari nahiz politikariei.**

KONTAKTUA

HARREMANETARAKOPERTSONA

JULENE GORROTXATEGI

600 02 27 20

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

HELBURUAK

- Hezkuntza-eragileei (irakasle, hezitzaile, teknikari, guraso...) euskal kultur adierazpideen oinarritzko alfabetizatzea eskaintzea da. Alegia, kultur testuak gorpuzteko eta irakurtzeko oinarritzko ezagutza eta metodologia zenbait eskaintzea.
- Euskal kulturako askotariko adierazpideak eta adarrak modu bateratu eta integral batean jorratzea, betiere kultur adierazpide bakoitzaren alfabetatze berezietan urratsak eginez.
- Kultura gutxituaren testuinguruak eta logikak ardatz izango dituen euskal kultur hezkuntzarako marko bat eraikitzea.

NORI ZUZENDUA

Hezkuntza eragile orori: irakasle, irakaslegai, hezitzaile, guraso, aholkulari nahiz politikariei.

PROGRAMA

Ikastaroak 9 ECTSko lan-karga dauka, 225 ordu

1. Kultur hezkuntza, kultur ikuspegiak eta euskal pentsamendua (2,5 ECTS). Urriak 6-urriak 24

Euskal kultur hezkuntzan jarduteko oinarri batzuk izango dira langai ikasgai honetan. Oinarri horietan kultura gutxituaren, kultur ikuspegien eta euskal pentsamenduaren inguruko gogoeta-hari nagusi batzuk landuko dira, betiere kultur alfabetizatzean izan beharreko kokatze batzuk zedarritzeko.

2. Euskal kulturaren genealogiak eta ibilbide historikoak: kultur hezkuntzarako akuilu (2,5 ECTS) Urriak 27-azaroak 14

Euskal kulturaren ibilbide historiko zenbait izango dira aztergai ikasgai honetan. Kultur testuaren hainbat alderdi kokatzeko eta interpretatzeko kultur adierazpideen (eta sortzaileen, kultura-egituren, kultura-zirkuituen) genealogiak eta ibilbide kanonikoak ezagutzea garrantzitsua da, kultur adierazpidearen adarkatzeen logikak ezagutzeko, baita jarraidura-irekidura uneen berri izateko ere.

3. Kultur alfabetatzeak eta euskal kultur kritika (4 ECTS). Azaroak 17-abenduak 5

Kultur adierazpide batean sakontzeko kultur kode eta genero-kode berezitu batean gaitu behar dute ikasleek, alegia, kultur komunikazio jakin batean gaitu behar dute. Halaber, kultur testuen interpretazioak egiteko kultur kritikaren joerak ezagutzea eta bereiztea funtsezkoa da, kultur praktiketara hurbiltzeko jorra daitezkeen begirada kritiko askotarikoak ezagutze aldera.

METODOLOGIA

Aurrez aurreko saioak

- Adituen begiradak jasoko dira eta dinamika praktikoak egingo dira kultur testuak gorpuzteko eta interpretatzeko.

Online bidezko saio sinkronoak eta online bidezko lanketa

- Batetik, kultur adierazpideen historia nahiz oraina interpretatzeko gako batzuk eskainiko dira, eta, bestetik, kultur testuak interpretatzeko eta horiez eztabaidatzeko nahiz esanahi partekatuak eraikitze baliatuko dira online bidezko saioak.

MATRIKULA

Izen-emate orria

- Bidali izena emateko eskaera orri hau helbide honetara: eescandon@mondragon.edu

Izena emateko epea

- 2025eko irailaren 29a.

KOORDINAZIOA

Idurre Alonso Amezua.

JASOKO DEN TITULAZIOA

Mikrokredentzial hau eginda

- Euskal kultur alfabetatzea hezkuntzan Unibertsitateko Mikrokredentzial zigilua.

Ikasten jarraituz gero

- Ibilbidea jarraitzeko aukera dago. Euskal kultur eragiletzarako estrategiak hezkuntzan unibertsitateko mikrokredentziala eginez gero, bigarren mikrokredentziala jasotzeko aukera, eta biak eginda, **Euskal kulturaren eragiletza hezkuntzan Aditu diploma** ere jasoko da.

IRTEERAKO PROFILA

Mikrokredentzial honekin euskal kultur testuak interpretatzeko oinarrizko ezagutzak jasoko dira.

PRAKTIKAK ETA PROIEKTUA

Kultur testuen interpretazioan oinarrituko da ikastaroaren azken lana.

KOLABORATZAILEAK/ BABESLEAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Ikaselkar.



PREZIOA

- Ikastaroaren prezioa, 1.200 €. **Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren diru-laguntzarekin** (Berezko prezioa, 2.000 €).

INFORMAZIO GEHIAGO

HARREMANETARAKO PERTSONA

Julene Gorrotxategi

+34 600 027 020

idazkaritza.huhezi@mondragon.edu

<https://www.mondragon.edu/cursos/eu/euskal-kultur-alfabetatzea-hezkuntzan-unibertsitateko-mikrokredentziala>